

Euskal AEko esportazioak %11,2 gehitu ziren 2014ko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioak %20,1% gehitu ziren aldi berean

Euskal AEko **esportazioak** %11,2 nominal batez gehitu ziren 2014ko hirugarren hiruhilekoan, EUSTATEN datuen arabera. Guztirakoa 5.429 milioi euro; iaz, 4.882.

Inportazioak %20,1 gehitu dira, 4.551 milioira. Inportazio ez-energetikoak bakarrik hartuz, gehikuntza txikiagoa da, (%17); 2.707 milioi.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2013-2014, hirugarren hiruhilekoa


	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila-Iraila			Uztaila-Iraila		
	2013	2014	Δ %	2013	2014	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.881.846	5.429.398	11,2	3.788.093	4.550.744	20,1
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	631.307	782.222	23,9	1.474.332	1.843.772	25,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.250.539	4.647.176	9,3	2.313.761	2.706.972	17,0
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	1.212.066	1.489.757	22,9	542.207	544.296	0,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	678	1.469	116,6	821	733	-10,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.211.388	1.488.288	22,9	541.387	543.563	0,4
BIZKAIA						
GUZTIRA	2.146.142	2.357.869	9,9	2.509.393	3.232.608	28,8
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	629.489	779.321	23,8	1.472.551	1.841.692	25,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.516.652	1.578.548	4,1	1.036.842	1.390.915	34,1
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.523.638	1.581.772	3,8	736.493	773.840	5,1
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.140	1.432	25,6	961	1.347	40,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.522.499	1.580.340	3,8	735.532	772.493	5,0

Iturria: Eustat. Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak (KAMEE)

Saldo garbia positiboa izan da: 879 milioiko **superabita**. Esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa, %119,3. Produktu energetikoak bazter utzita, **merkataritza saldo ez-energetikoak** 1.940 milioiko superabita du, 2013ko hirugarren hiruhilekoan baino 3,4 milioi gehiago. Estaldura-tasa ez-energetikoa 2013ko %183,7tik 2014ko %171,7ra pasatu da.

Europar Batasunerako esportazioak %15 gehitu dira 2013ko aldi beraren aldean, esportatutako guztiaren %63,4 dira, aurreko urteko hiruhileko bereko baino ehuneko 2,1 puntu gehiago. Hazitako esportazioak: Herbehereak (%76,3), Alemania (%21,6), Portugal (%10,6), Italia (%10,4). 28-EBtik kanpo, hazkundeak esportazioetan: Norvegia (%255,7), Txina (%38,8), Mexiko (%7,7), Estatu Batuak (%4,8).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Euskal AEko kanpo-merkataritzaren estatistikak

Europar Batasunetiko **inportazioak** %63,8 gehitu ziren, batez ere Letonia, Estonia eta Erresuma Batutik eginiko inportazio energetikoengatik. Frantziatikoetan, %-3,2. Munduko gainerakoan, berriz ere nabarmentzen dira irakiarrek eta Norvegiatikoak (%23,5); beheraka Errusiatik (%-51) eta Mexikotik (%-8,2), den-denak energetikoak. Txinatikoak ere nabarmen (%13,9) gehitu dira; aspalditxo da EBtik kanpoko inportatzaile ez-energetiko nagusia.


Muga-zergen sekzioen arabera, esportazioez, Garraio Materiala (%53,2) eta Produktu Mineralak (%24,5) nabarmen gehitu dira. Garrantzitsuenen artean Material elektrikoa bakarrik jaitsi da (%-4,3). Inportazioetan: Produktu kimikoak (%257,3), Metalak eta beren manufakturak (%9,2), Material elektrikoa (%-4,2).

Araban izan da esportazio hazkunderik handiena (%22,9), batez ere Garraio materialagatik (%94,9). Nabarmentzekoak dira, baita ere, Metalen eta beren manufakturen (%12,6) eta Plastikoen eta kautxuaren (%5,6) hazkundeak. Aurreko urteko aldi beraren aldean inportazio arabarrak %0,4 gehitu ziren; bi sekzio garrantzitsuenak gehitu egin ziren, Metalak eta beren manufakturak (%2,8) eta Material elektrikoa (%1,2).

Bizkaiko esportazioak %9,9 gehitu ziren, Produktu mineralak (%25,7) eta Garraio-materiala (%33,9) arloek izandako bultzadaren ondorioz. Jaitsierak: Material elektrikoa (%-10,1), Metalak eta beren manufakturak (%-1,2). Bizkaiko inportazioak %28,8 gehitu dira, hiru lurraldeetako hazkunderik handiena, hiru sekzio nagusien (guztia %83) gehikuntzagatik. Produktu mineralak (%24,8), Metalak eta beren manufakturak (%10,1), eta Produktu kimikoak (%565,5).

Esportazio-hazkunderik txikiena (%3,8) **Gipuzkoan** izan da. Sekzio garrantzitsuenak: Garraio materiala (%10,7), Material elektrikoa (%3,9), Metalak eta beren manufakturak (%1,7). Gipuzkoako inportazioak %5,1 gehitu dira. Sekzio garrantzitsuenak: Metalak eta beren manufakturak (%11,6), Material elektrikoa (%-1,4).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Milioi euro)



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua